

# Gatzagia

Kalentura duzu, esan zidan. Nola ez nuen ba kalenturarik izango, haren bularralde biluzia hain gertu edukita. Haren usaina, belar ondu eta izerdi mikatz nahasketa hura. Eskuak nire kopetan jarraitzen zuen. Bero-bero nengoen. Haren esku handiak nire gorputz osoa ferekatzen irudikatu nituen, zokondo guztiak laztantzen, toles eta zirrikitu ezkutuak behin eta berriro miatzen. Kiskaltzen ari nintzen.

Haren esku leunak. Bostekoa luzatu zidanean harritu nintzen. Esnearen gazuragatik da, argitu zidan gerora, eskuak esne gatzatuan sartu behar ditut gatzaren pikortak neurtuta hartzidura noiz amaitu jakiteko. L'Oréal eta Nivea jakinaren gainean al dira? Nire erantzunaren txepelaz ahoratu orduko lotsatu nintzen.

Mendian topatu ninduen. Oina zulo batean sartu eta orkatila bihurrituta noraezean nenbilela, ardi galduaren modura. Bere bordara joateko eskaintza egin zidan, eta egun batzuk han igaro eta osatuta, zibilizaziora neure kasa jaitsiko nintzela agindu. Behinola eskolan irakurritakoa etorri zitzaidan burura: *Ura zen gizona, ura!* Ez zen Joanes artzaina, *ez zen zazpi oin ta erdi bai luze...* ezta beharrik ere! Baina haren moduan, *arte gogorra bezela trinko* zen.

Inoiz ez bezalako zirrara sentitu nuen bere besoarekin gerritik heldu zidanean. Bermatu lasai nire sorbaldan. Haren usainak zorabiatu ninduen, eta konturatu zen. Oraindik gaur da eguna ez dakidana haren gorputzak sortu zidan ezinegonaren jakitun zelako ote zen edota zerupean igarotako orduak eragindako flakeziari egotzi ziolako. Makila eskaini zidan eta tirriki-tarraka abiatu ginen bordara.

Ardi zuriak dituzu guztiak, ardi beltzik gabeko artalderik ez zegoela uste nuen.

Beltzak izuak dira.

Beldurtiak?

Ez, hezikaitzak. Ez dira gobernatzen uzten.

Eta txakur batek ez lizuke lagunduko artaldea gobernatzen?

Zaila da hura gobernatzea ere, zaindu behar duen ardiaren odola probatu duenean. Azienda gorde ordez, bere beharra baino ez luke aseko, eta hori ezin da. Artzain onak ardiak maite.

Maiz errepikatzen zuen esaldi hura. Benetako esanahia gerora ulertu nuen baina.

Lehen gaua beilan pasa nuen, begiak bildu ezinda erne, haren arnasketa pausatua zaintzen, gorputz hark eragiten zidan oldar basari ezin eutsiz, ahuspez lastairaren kontra, intziriak burkoan itoz, sabelpeko dar-dar gozoa asetzen. Goizean,

jakina, abailduta nengoen, baina ez nuen lo galduaren damurik. Akaso, gauekoa gonbidaturik gabeko festa pribatua izanarena baino ez.

Hori kaiku bat esne apartsurekin konpontzen da. Eta hala zen, bai, hori ere gerora jakingo nuen.

Bordan igaro nituen lehenengo bi egunak, bakarrik, mugitu ezinik ia, orkatilaren hanturak ezindua. Hura goiz jaikitzen zen ardiak jetzi eta gazta egitera, eta lanak amaituta mendian gora abiatzen zen artaldearekin. Arratsaldean, atzera errepikatzen zuen zeregin bera: eskortan ardiak jetzi, gazta egin eta gaztandegia garbitu. Eginbeharrekoak amaitutakoan etortzen zen niregana.

Hitz gutxiko gizona zen, berezalea. Bakarrik gustura zebilela argi zegoen. Gizakiak baino ardiak nahiago zituela lagunarte. Horregatik, oina osatu bitartean bere borda eskaini izanarekin fantasiatan aritu nintzen. Bakarzalea bazen, zertara zetorren eskaintza hori? Zergatik egin zidan niri?

Orkatila handituta ezdeusa nintzen edozer gauza egiteko. Gauean galdutako loa berreskuratu ostean, ameskerietan jarraitzen nuen esna, irudikatzen nire Joanesen eskuek atzetik oratzen nindutela. Biak belauniko lastairaren gainean geundela eta esku abilez hankak zabalitzen zizkidala eta izter-zokoak laztantzen. Eta ni, desirak makotuta, konkortzen nintzela haren zakilaren bila. Eta haren eskua nirearekin biltzen nuela, xedera gidatzeko. Baina ni baino indartsuagoa izanik, esku bakarraz nireak atxikita berriro hasten zela oinaze hura, libre zuen eskuarekin hasten zela berriro ere kukuka nire izter artean. Eta haren gorputzean bermatuta, indarge urtzen nintzela. Eta egiten uzten niola, ikara amaigabe batean, amasestuka, nire onetik aterata.

Balakak entzun arte.

Eta sinesgaitza egiten zitzaidan nengoen bezala egonda soinu haiei erreparatu izana. Dardarka lastairaren gainean, intzirika plazeraren bulkadek bihurrituta, baretu beharrean aurkakoa baino ez zuten lortzen. Artaldearen bee eta zintzarri-hotsek gero eta gehiago berotzen ninduten. Bazetorren nire atzezaina.

Eta etorri bezala joango da eskortara ardiak jeztera, zapuztu nintzen berehala, eta afari-legea eginda eta hitz gutxi batzuk partekatuta berriz ere amildu beharko naiz ohatze honetara. Baina ez, garbiketa-eguna zela hura eta errepara bainua hartzera joango ginela bota zidan irribarrea aurpegian. Eta ikara batek hartu zidan gorputz guztia, ezta nire ametsik beroenean, pentsatu nuen. Eta herabe sentitu nintzen haren begiradaren aurrean. Ameskizunetan jarraitzen nuen, ala?

Arropa erantzi zuen nire aurrean eta putzuan sartu zen xaboia eskuan. Niri bizkarra emanda zegoen eta haren gorputzaren mirari lotu nintzaion. Haren ile gaztaintara, lepo sendo, sorbalda zabal eta gerrirantz estutuz zihoan soina...

bizkar-bukaerako sakonunean galdu nintzen. Doi-doi ikusten zitzaion erretena ipurmasailen hasierako goragunean. Gorputz-atal guztiak igurtzi zituen, eta, aparra kentzeko, uretan desagertu zen.

Zatoz, espezial dago!

Aurrez aurre nuen orain, irribarre txikia ezpainetan. Ur-tantak bularraldean behera irristatzen zitzaizkion. Zilborretik sabelpera zihoan ile lerroari erreparatu nion, aparrak kateatuta jarraitzen zuen erdizka ikusten zen mataza ilunean eta diz-diz egiten zuen. Arnasa kentzeko moduko gorputza zuen, eta hala nengoen, itobeharrean. Han nuen nire Joanes, harro eskaintzen zitzaidan bistara. Bere buruan uste osoa zuela argi zegoen, besteengan sortzen zuen zirraren jakitun zela bezain argi. Haren giharrei so gelditu nintzaian, ez ziren modu agerian nabarmentzen, hainbat hobe, kulturisten estetikak ez bainindun batere kitzikatzen.

Kirtena, bai, kirtena, handiegia zen inon ez nabarmentzeko, inor ohartu gabe gelditzeko. Inoiz ikusi gabea nintzen halako tramankulurik. Eta ur hotzetan bainatu da, pentsatu nuen aztoratuta. Uretatik aterata niregana zetorren pauso seguruz eta dardarka hasi nintzen. Besoekin belaunak bildu nituen ikara hura kontrolatu nahian. Buruari eragin zion eta ilea ez ezik zintzilikarioek ere jaso zuten astindua, dilin-dalan. Hori baitute grazia, pentsatu nuen, begiraiozu aurpegira, kristo! Xaboiaren lurrina sumatu nuen. Parez pare neukan, metro eskasera, eskuaz izterra fereka niezaiokeen... giderra atzeman. Eskua luzatu zidan... xaboa emateko, eta luze-luze etzan zen nire ondoan, eguzkiaren azken printzek gorputza lehortzeko.

Bainuaren premia nuen, bai, argi zegoen. Gorputza ur hotzetan beratu behar nuen beroaldi hura baretuko banuen.

Gaueko ordu txikietan, gorputz egarberari lasaitua eman osteko beilan, hartu nuen erabakia. Ezin nuen beste egun bat bordan bakarrik igaro, erotu beharrean nengoen. Haren premia nuen, koldarra nintzen baina, eta ez zuen nire ahotik horrelakorik entzungo. Nire eskuek ez zuten haren tolesetan galtzeko gozamina ezagutuko agian, baina nire begiek atsegin hartuko zuten behintzat, eta eskuek topatuko zuten, bai, galtzeko tolesik. Asmo sendoa nuen: goiz-goizean atzetik joango nintzaion.

Madarikatu nuen neure burua, lo hartu nuen, noiz eta erne behar nuenean. Zorionez, bordatik atera berria zen. Garaiz nenbilen, bada. Arropa jantzi bitartean orkatilari erreparatu nion, hobera egin zuen, hanturarik ez zegoen eta ez zidan enbarazurik egiten. Bihotza saltaka nuen eztarritik atera beharrean. Eta zelatan nenbilkiola harrapatzen baninduen? Merezi du ausartzea, adoretu nuen neure burua.

Eskorta bordaren atzealdean zegoen. Bi zatitan banatzen zen, gun e zabala bata, eta korridore antzekoa bestea, luzea eta estua, jetzi behar ziren ardiak errazago atzemateko. Gaztandegia, gure bizitokiaren tamaina bertsua zuen harrizko etxola, eskortaren alboan zegoen. Tentuz gerturatu nintzen, gaztandegian behar zuen eta, atea irekia baitzegoen. Ardiak

aztoratuta zeuden, urduri, beeka, lurrari ostikoak ematen, bata bestearen gainera pilatzen. Marraka jasanezina zen ia, errapeak nork hustu erreklamatzeko zuten gero eta ozenago. Gaztandegitik atera zen kaikua eskuan eta marmita makila baten puntan sorbaldan zeramala. Ahari faltan, zenbait ardi topeka hasi ziren artizkuneko lehen lekua zeinek bereganatuko. Ni ere urduri, eskortaren harrizko hesia baliatu nuen ezkutatzeko; ez oso hurbil, ez bainengoen oso konbentzituta nire ezinegonak ez ote ninduen salatuko.

Ardi bat bereganatu zuen eta artile-xerloak laztandu zizkion, lasaitzeko edo. Ile luze eta kizkurra lurreraino iristen zitzaion ia. Harri bat aulkitako hartu eta kaikua lurrean ipini zuen. Eseri eta esku trebeek errape hanpatuaren erroak aurkitu zituzten. Ardia jezten hasi zen, gora eta behera sakatzen, titiburuak lauskitzen eta zanpatzen, eta esne apartsua ateratzen. Turrustaren hotsak kaikuaren zurezko hormaren kontra jotzen zuen.

Lehena, bigarrena, hirugarrena... mekanikoki egiten zuen bere lana, begirada galduta, kokotsa ardiaren bizkarrean paratuta. Kaikua betetzean alboan zuen marmitan husten zuen eta berriro hasten zen, saka eta saka. Bosgarrena, seigarrena... lokartzeko erremedio ona, pentsatu nuen.

Halako batean esnearen turrusta entzuteari utzi nion; haren eskuek lanean jarraitzen zuten baina. Bat-batean zutik jarri zen eta galtzak belaunetaraino irristatu zitzaizkion. Alkandoraren hegalek ozta-ozta tapatzen zuten izter artean burua tentetzen hasia zen zakila. Ardia atzetik oratu zuen oraingoan eta ile-xerloei helduta hasi zen bultza eta bultza, astiro hasieran, gero eta biziago gero, dinbi eta danba, barrua goldatu nahi balio bezala. Saka eta saka orain ere, ardiari atzeko hankak airean zebilzkion, eta zintzarriaren mihiak, jo eta jo, lehertu beharrean, markatzen zuen erritmo asaldatua. Lehena, bigarrena, hirugarrena... ardiak inguruan, zoro moduan balaka zebiltzan, beren ahariak noiz gainkatuko zain. Bat-batean ardia askatu eta kaikua hartu zuen, zarrastak indartsu jo zuen zuraren kontra.

Eta ni ere korritu nintzen, dardarka, hasperen eta intzirika, lau hankan konkortuta, ardiaren koruak eta harresiak eskaini zidaten intimitateak ezkutatuta.

Ezin nuen sinetsi. Eldarnioan jarraitzen nuen artean? Murruren gainetik burua kontuz atera nuen. Ardiak, asebeteta, bazkan ari ziren eskortatik aterara. Gaztandegiko atea irekia zegoen, barruan behar zuen bada. Nire oroimenaren lainoan, marmita betea eskuan, gaztandegiko atetik sartzen gogoratzen nuen, edo hori uste nuen behintzat. Gazta prestatzen behar zuen, beraz. Zain gelditu nintzaion. Laster zen kanpoan; atarian zeukan makila hartu eta artaldearekin egin zuen mendian gora. Nahikoa urruti zegoela ikusi nuenean, ezkutalekutik atera eta atzetik abiatu nintzen hankartea erresuminduta.

Zorionez basoa nuen neure burua ezkutatzeko. Hura muino batean etzanda zegoen; ardiek, otzan, inguruan bazkatzen zuten bitartean. Joalduna eta taldea hausnarrean, pentsatu nuen, aurreko irudiak burutik ezin kendurik. Nik ere lo-kuluxka behar nuen.

Aztoratuta esnatu nintzen, hain egiazkoa izan zen. Burua nire hankartean zuen, aurpegiarik ez nion ikusten ia, baina bera zen. Haren-ile xerloei helduta nengoen, segi hola, hola esaten, eta oihu egin nuen.

Ametsetan egin nuen ala benetan? Zurrun nengoen, izerdi hotzak paralizatuta. Ez nintzen berehalakoan mugitu. Bihotz-taupadak moteldu zirenean atera nuen burua, muinoan jarraitzen zuen etzanda. Ez zegoen lo, ordea, artaldea sakabanatu zitzaiola konturatu eta salto batean jaiki baitzen. Gerrira halako poltsa bat lotu eta gatx-gatx, gatx-gatx esaten hasi eta ardiak ingurura bildu zitzaizkion arrapaladan.

Arkara ziruditen, arreske bat-batean, eta burukadak jotzen hasi zitzaizkion hankarteko zorroari. Adarrekin kontuz ibili beharko du berea faltan bota nahi ez badu pentsatu nuen, eta ahoa bete hortz gelditu, galtzak erazten zituela ikusi nuenean. Oraingoan, baina, ez zuen ardiak gainkatzeko imintziorik egin. Zutik gelditu zen, prakak belaunburuetan, ardiek muturra bere kontra igurzten zuten bitartean. Zer ote zegoen zakuto hartan?

Agorra behar du, pentsatu nuen, abaildua ageri zen zurtoinari so. Ja-jai. Ardien mihi latzek obratu zuten miraria. Herabe hasieran, tentetu zen malguki bat bezala gero. Poltsa askatu eta lurrera botata, gertuen zuen ardiari lotu zitzaion. Niri bizkarra emanda zegoen eta haren izter sendo eta ipurmami uzkurtoak baizik ez nituen ikusten. Eta aurrera eta atzerako mugimendua, eta kadentzia gero eta basagoa, nekez eutsi zitekeen oldarraldia behar zuena. Oihu eginez erori zen belauniko lurrera, ardia alboratu eta etzan zen ahoz gora belarretan. Gudariaren atsedena, pentsatu nuen, piltzarra behar zuen zakilari erreparatuta. Berrito ja-jai erantzun izan balit bezala sentitu nintzen, abaildurarik ez baitzitzaion nabaritzen soldadutxoari. Amorratu nintzen.

Minutu bat eman nion, galtzak janzteko adina beta, baretzeko tarterik ez, ordea, eta nire burua salatzen zuen aldarria egin nuen: Non zara? Kasu egidazu!

Orkatila ongi duzu, bada.

Hantura jaitsi da eta orain arteko bidean behintzat ez dit minik egin. Laster jaitsi ahalko naiz zibilizaziora.

Muinoan eserita geunden ardiei begira, isilik.

Hauek dituzu nire printzesak, esan zidan. Hausnarkari tuntunok? jarri nintzen jeloskor.

Isilik jarraitzen genuen eta deseroso nengoen. Goseak egongo nintzelakoan, gazta eta ogia atera zituen alboan zuen bizkar-zorrotik. Aiztoarekin xerrak egin eta eskaini zizkidan ogiarekin. Ura ere badugu, nahi adina, esan zidan ehun bat metrora zegoen iturburua hatzarekin erakutsita.

Goxoa dago, zenbat litro behar dira gazta bat egiteko? Gazta kilo bat egiteko, 5,5 eta 6,5 litro esne inguru behar izaten da. Eta zenbat litro eman ditzake ardi batek egunean? Litro bat ardi eta eguneko, nahiz eta, batzuetan, ardi batek bi litro ere eman ditzakeen egunean. Birritan jezten dituzu, ezta? Bai. Hauek ardi latxak dira, ezta? Bai, latx muturbeltzak. Eta alderik bada esne batetik bestera? Arrazaz gain, klima, adina, jaten duten belarrak ere eragiten dio esnari... Zein da belarrik onena? Leku eguzkitsuetan jaiotzen dena; baina, jakizu, ardiak umeari titia emateari uzten dionean, gero eta esne koipetsuagoa ematen duela, eta horixe dela gazta egiteko dauden esneen artean aproposena. Haurdun al daude? Ez, ernari! Sasoi honetan ez; arkumeak apiril aldera jaio ziren, koskortuta daude honezkerok.

Hiztun ona zen eta ikasia behar zuela pentsatu nuen. Bizitza hartara zerk eraman ote zuen jakin nahi nuela erabaki nuen.

Eta gatzagiarena, zer da? Arkumearen urdailetik ateratzen den gaia da, belarrik jan ez duen arkumearena izan behar du. Arkumea akabatu behar da, orduan? Bai. Zuk hori egiten duzu? Lehen bai, orain bestelako gaia darabilt. Eta zer egiten du gatzagiak? Esnea gatzatu, likidoa dena solidotu, esnea gazta bihurtu.

Zerabilena ez zen asko usteko baten doinua, baina niri, kalekume hauei zer erakusten diete pentsatzen ari zela iruditu zitzaidan.

Eta zorro horretan zer duzu? Gatza. Horregatik gatx-gatx, ezta? Harrituta begiratu zidan hasieran, eta irribarre gaixtoa hortzetan zuela gero, nire deserosotasuna antzematean. Galtzarpa deitzen da, eta gerrian lotuta edonora jarraituko dizute ardiek, belarra bezala behar dute-eta gatza.

Isilaldi luze baten ostean bordara itzultzeko garaia zela esan zuen eta etxean klase magistralarekin jarraituko genuela, nahi banuen ardiak jezten erakutsiko zidala. Baietz egin nion buruarekin, isilik oraindik.

Errapea bero-bero zegoen eta erroak, berriz, bi lukainka mutur iruditu zitzaizkidan. Haren eskuek nireak biltzen zituzten eta nireek titiburu hanpatuak. Tinko heldu, ez izutu. Ardiaren alboan geunden eserita, uzkurtua ni, haren gorputzak nirea ukitzean sortzen zuen hotzikara kontrolatu nahian. Oso tentsu zaude, lasaitu; titi bat baino ez da. Zorabiatzen ari nintzen. Sakatu gora eta behera, erroberan egitea bezala da, hori zuk ere badakizu egiten. Ez nion ulertu. Zanpatu beldurrik gabe, igurtzi gora eta behera, ondo estutu muturra, eta eragiozu berriro gorantz, sakatu eta marruskatu, leun baina irmo. Nola datorren antzemango diozu berehala. Txorrota herabe batek jo zuen kaikua. Ardia bera ere konturatu zen nire ahalegin

eskerbaren fruituaz. Zoriontsu begiratu zidan... ardiak. Uste dut oraindik ahul samar nagoela, esan nion. Nahikoa egin nuela eta berak amaituko zituela lanak esan zidan, irribarrea disimulatu nahian. Zoaz bordara, berehala naiz zurekin.

Kalentura duzu.

Afari-legea eginda oheratu ginen eta orain bere esku leuna kopetan nuen, bitartean zer gertatu ote zen jakin ezinik, erdi lo, asaldatuta nengoen. Ametsetan zeunden eta oihu egin duzu. Izerditan hasi nintzen, aztoramena ezin gobernaturik. Bero-bero zaude.

Ez dakit nork eman zuen lehen urratsa, ez dakit hura izan ote zen ala ni, edo biak batera. Apenas oritzen naizen, musu bortitzean ia hortzak kraskatu genituela baino ez dut gogoan. Behar gordina zen hura. Ezpainak janez, mingaina zintzurreraino sartu nion, nik dakit nola! Desesperazio aseezinez hasieran, seguru nago, eta haren desira, senti zitekeen enbata fisikoa, nirearen adinekoa zela konturatzean, samurrago. Behingoagatik kontrola galdu zuen eta horrek gehiago kitzikatu ninduen.

Nire aurrean zutik jarrarazi nuen, zangoak zabalik, galtzontziloak belaunburuetan. Mondejoa gustatzen? Zuria nahiz beltza; belaunikatu nintzen berea gurtzera. Ahoan sartuta bero-bero zegoen, ito beharrean nengoen, halako puska zen lope hura. Zupa eta zupa hasi nintzen, astiro, oso astiro hasieran. Buru harroa milikatzen hasi nintzaion, ezpain artean ibili eta mihi-puntaz ukitu nuen larruazala, musukatuz, larruazalaren azpian preso, taupaka zegoen mokoari ez ikusiarena eginez. Hanpa-hanpa agertu zitzaidan, ordea, arrosa koloreko lore leuna bailitzan. Mihi-puntaz zedarritu nituen haren mugak, eta haren dardara sumatu nuen, ia-ia erori zen zorabioaz. Nire buruari oratu zion, eusteko hasieran, erritmoa gidatzeko gero. Kostata, ahoan nuen zakila ezin bainuen osorik irentsi. Moko betearekin jolasten nuen bitartean, zurtoin zaintsua eskuekin bildu, eta aurrera eta atzera igurtzi nuen kementsu. Intziriek borda bete zuten. Gelditu eta pixka bat urundu nintzen, burua altxatuta haren aurpegiari begiratzeko. Desegina zegoen, bere onetik aterata, dar-dar batean. Barrabilak eskuekin bildu nituen, haztatuz, abaildutako arbolaren bi fruitu umo ziruditen, azal zimurtsua laztandu nuen, ahoan sartu nituen gero, hark eskuarekin bere mastari oratzen zion bitartean. Besoz ezin bil zitekeen pago tantaia iruditu zitzaidan, hain zen handia kirten haren gerri-buelta.

Hire txanda, esan eta ohatzearen gainera eraman ninduen eskutik hartuta. Belaunikatu nintzen eta, nire ametsetan bezala, atzean ipini zitzaidan. Ipurmasailak laztandu zizkidan hasieran, titiburuak gero, eta zakila hankartean paratuta izter-zokoan igurzten hasi zen. Ikara batean nengoen, baita pittin bat izututa ere. Konkorturik, zabal-zabalik eskaini nintzaion baina, nirekin nahi zuena egin zezan.

Burdin gorria zen haren kirtena, aziendei xakia jartzeko erabiltzen denaren antzekoa. Erdiz erdi zulatu ninduen eta ia zorabiatu nintzen hasierako oldarraldiarekin; lau hankan, kostata eusten nion eraso hari. Aurrera eta atzera, aurrera eta atzera, konturatuta, mantso-mantso hasi zen, bulkada basa zena goxatuta. Astiro-astiro, sartu eta irten, sartu eta irten. Ez dakit zer zen okerragoa. Neure intzirietan itotzen ari nintzen. Hasierako oldarraldia baino jasanezinagoa zen kulunka hura. Erritmoa azkartzea, eraso indartzea nahi nuen, haren barrabilak, aran umo haiek, nire ipurmasailen kontra lehertzeko moduko oldarraz jarduteko erregutu nion erotuta. Ezetz, ozta-ozta entzun nuen haren xuxurla, bion hatsankek bildua. Arrazoi zuen, inoiz sentitu gabeko plazera, inoiz baino biziagoa nengoelako sentsazioz abandonatu nintzen nire Joanesez markatutako bizi-erritmora.

Begirada lausoa altxatu nuen eta bi ilinti beltz ikusi nituen kristalaren beste aldean guri so. Azeria? Azkonarra, akaso? pentsatu nuen hasieran eta intziriak ozendu nituen gero, nire plazeraren adierazpenak puztuz, leihoaren bestaldean zegoena asmatzean. Txorakeria emango du, baina ez nuen begirada aldaratu, haren soari eutsi nion, behingoagatik hura izan zedila hisiaz amorratzen zena; oraingoan, gainkatzeko, artaldeko ahariak ni hautatu baininduen. Ilintiak hamaika txingar bihurtu ziren eta kanpoaldeko marraka, berriz, jasanezina. Ardiak arkara zeuden, senetik aterata, gero eta aztoratuago, haien ufa eta balakekin lehian ari nintzela antzematean.

Nire atzezaina ere konturatu zen printzesak so zituela eta kemen berriarekin eragin zion ikuskizunari. Dardarka sumatu nuen, bere zakila nire barruan sartuta oihu egin eta hustu zenean. Luzez antaparan bezatutako urari konporta irekitzea bezala izan zen. Busti ninduen osorik, labarraren kontra hausten den itsasoak nola. Ohatzean erori zen eta abaildua zirudien zakilari muxu eman nion, haziaren azken kondarrak milikatuz, haren esne karmina dastatuz. Atsedena behar zuen.

Zatoz, esan zidan, ordea, eta belauneko ipini ninduen bere aurrean. Errapeak ondo beteak dituk, eta erroa ere ez duk makala, bota zidan. Eta egia da, harrotu nintzen hori entzutean. Eta zutitu zitzaidan haren eskuak nire barrabilak haztatu zituenean. Txistuz busti zuen nire zakil-moko egarbera eta mihi-puntaz laztandu zuen jolasti. Haren mingaina, lakatza uste nuena, leuna zen erabat. Ni nintzen orain haren burua, haren ile-xerloei oratuta, begiak itxi eta lema zeramana. Aurrera eta atzera eragiten nion buruari, mantso hasieran eta azkarrago gero, hamaika txingar guri so antzeman nituenean. Nire Joanesez ez zen gidatzen uzten, ordea, eta astiro-astiro jarraitu zuen. Moko hanpatua lehendabizi, zuztar loditua gero, barrabilekin ahaztu gabe. Maitekiro jetzi ninduen, bere aurreko oldar basa konpentsatu nahian edo.

Korritzeko prest nongoen eta haren ahoan korritu nahi nuen. Esku bakarrarekin jarraitu zuen baina, ni igurzten, eta bestearekin ohatze azpian zegoen kaikua hartu zuen. Azken zurrupada eman zion nire zakilari eta isuri nintzen, eta turrustak kaikuaren zura jo zuen. Abailduta erori nintzen ohatzean eta lo sakonak hartu ninduen.



Nahastuta esnatu nintzen, non nengoen ez nekiela. Segituan antzeman nuen, ordea, sexuaren usain lodiak nire sudurzuloak bete zituenean. Begira nuen, aspaldi esnatua zirudien, goizeko lanak amaituta. Zatoz esan zidan, kaikua prest duzu... gosaltzeko, bota zidan algara ezin erreprimetuta, bordako leihoak zabaltzeko buelta eman aurretik. Gero nahi baduzu garbitu gintezke. Begiradarekin baietz egin nion, premia bagenuen, bai. Eta ardiak? Gaur bakarrik joan dira esanda atera zen bordatik.

Ardia da gizakiak hezitako lehenengo animalia. Duela sei bat mila urte hezi omen zuen, eta gaur etxe-ardien arraza asko dago munduan. Hemen produkzioa bada, baina munduko produktorerik handienak Australia, Zeelanda Berria, Txina, Argentina eta Hegoafrika dira. Hasperenka ari naiz, labanaren ahoaren ukitu soilak, irristatze geldoak segituan korriaraziko nauela baitakit. Esku abilak ditu, azala tenkatu eta gero irristatzen du laban zorrotza, biloak hazten diren kontrara. Artaizturrak hartu dituen izutu naiz eta konturatu da, ez dela ezer gertatzen, labanarekin murriztuko nauela esan du. Azken batean, bizarra egitea bezala da!

Askan gaude eserita, hark bizkarra harriaren kontra duela eta ni haren bularraldean bermatua. Uretan jolasean aritu gara eta gero aska hustu eta barruan gaudela aparrez estali dit gorputz osoa. Korritu naiz berriro, eta nire haziak eta aparrak halako lika eratu dute nire sabelpean. Labana hortxe ari da lanean, jasanezina zait ikara txikienak triskantza handiena eragin baitezake, eta horrek ezerk ez bezala kitzikatzen nau. Eta ukitu hutsarekin berriro isuriko naizenak amorratzen nau, haren eskuetan nerabe hasiberria bihurtzeak. Eta bulkada beroari eutsi nahian, askaren karelari esku zurbilez eusten diot, txalupa jitoan bezala bainabil plazerezko itsaso epelaren erdian. Hark, ezer gertatuko ez balitz bezala, ni murrizten jarraitzen duen bitartean.

Arraza asko daude. Batzuk ile motzekoak dira, haragitarako onak. Ezagunenetakoa Cheviot ingelesa da, oso sendoa eta zuria, muturrean izan ezik. Artiletarakoen artean, ardi merinoa da finena, artile bigun, zuri eta leunekoa. Jatorriz espainiarra bada ere, Hegoafrikan, Australian eta Zeelanda Berrian ere hazten da. Hatsanka ari naiz, neure lerdean ito beharrean. Labana izter-zoko ezkutuetan ari baita, eta pasada bakoitzean arnasa sakon hartuta mantentzen dut biriketan. Haren azalpenak oihartzun urrun bat bezala iristen zaizkit. Larruazalean irrista egiten duen labanaren ahoa baino ez dut entzuten eta pasara ostean arnasa askatzen dudaneko auhena. Zakil-mokoak eztanda egingo didala otu zait, bihotzak nire zakilean aterpe hartu ostean, taupadek lehertu behar dutela.

Larrua ematen duten arrazen artean ezagunena Karakul da, Asia Erdialdekoa. Gorputza gris eta iluna du, eta hankak eta burua beltzak. Arraza horretako axuriek ile kizkur distiratsua dute, eta haietatik ateratzen da astrakan famatua, jaiio berrien edota jaiio gabeen larrutik. Nire barrabilak laztantzen ari da, azal ximurra ferekatzen, eta zirkin egin dut hori entzutean eta

konturatuta besarkatu nau. Ume txikiari bezala hasieran, maitekiro. Israelgo ardiez galdetu diodanean, ordea, bai, behi-  
esneak diruditen Assaf delako horiek, ezta? ia erauzi dit titiburu bat. Amaitu dira niniarekiko gustu emateak.

Bortitza izan da hasieran, aurrekoagatik zigortu nahi izan bainau. Itotzekotan izan naiz haren zakila ezin irentsita, amorruz erabili du nire burua, hortzekin kontuz aritzen ez banintz damutuko nintzela aginduz. Belarri-gingila artaziekin ebakita akatsa egin dit, miru-buztana, nire ardien marka esanda. Eta begiak zabaldu eta begiratu niri aginduta korritu da nire ahoan, eta ni ere bai. Eta haren haziak eta nire listu eta odolak ase naute. Damututa edo zorura erorarazi eta muxu luze eta sentibera eman dit. Inoiz ez bezalako leizea nabaritu dut sabelpean, erortzen naizela osin beltzean. Atzetik besarkatuta nauela hartu gaitu loak.

Xamurra izan da esnadeia. Belarrian sendaketa eginda, muxu goxoarekin ito ditu erresuminak eragindako nire aieneak, barrez, pertsona nola izan daitekeen hain eskasa ahopeka, ardiek apenas egiten duten marrakarik. Konpentsatuko dizut, eta inoiz ez bezala kanpaia jo dit. Eta axuriak bezala bilatu dut nik ere haren zupakia. Eta gorputz anabasan, topeka, talka ari diren bi ahari gara. Egarrri ase ezinez zupa eta zupa, izter izerdituetan amilduz korritu gara bata bestearen ahoan.

Pulunpak, kalankak, bulunbak, dunbak, joareak, tunbalak, txilintxak, arranberak, zintzarriak... arran mihi gabea, uherrak jaten duela dio esaerak. Ez da gure koskabiloei ateratzen diegun musikarengatik izango, gauero jotzen baitiogu kanpaia elkarri. Abatzak, aroak, baheak, gaztanotzarak, kaikuak, malatxak... sekula ez nuen pentsatuko artzain baten lanabesek hainbeste jolas lizunerako emango zutenik. Ezin patentatu baina.

Ahari-jokoan aritzen gara gauero. Talka egiten dugu, bai, baina gure topeka ez da burezurra burezurraren kontra. Aurrendari zein atzendari ibiltzen gara eta gurea ez da ez norgehiagoka, joaldunak gidatzen duen izerdi, hazi, larru, zakil, uzki eta barrabil jokoan ados izaten gara, elkarri plazera emanez berdinduta erabat. Ase nau haren haziak, aurretik zein atzetik betetzen nau. Ez da nik nahi adina gertatzen baina, bizimodua atera behar baitugu eta gazta dezenteren falta eragingo bailuke nire gogoaren konplizteak. Noizean behin errenditzen da, ordea, nire apetetara.

Laster jaitsiko naiz zibilizaziora. Gara, artaldearekin, negua baitator.

Gainontzean ardiak pozik daude, ez baitira ahari faltan, bataren orde z bi edukita. Bezeroak ere gustura ditugu, produkzioa handitu izanak ez duela gaztaren kalitatean eraginik izan, are gehiago, orain, gozoagoa dagoela iruditzen omen zaie. Hala esaten digute behintzat.